**Ayuntamiento de Barañáin**
**Barañaingo Udala**

e **Servicio municipal de euskera**
**Udalaren euskara zerbitzua**

Casa de Cultura 2ºpiso
Kultura Etxea 2.a
**948 286 309**
euskaraz@baranain.com
www.baranain.es




Barañáin, febrero de 2012

Estimados padres y madres:

Ante la próxima apertura del periodo de pre-matriculación de vuestro/a hijo/a **(1 al 16 de marzo)**, tenéis la oportunidad de elegir la línea en euskera o en castellano en la Escuela Infantil Municipal.

Es por ello que, conjuntamente con las entidades locales firmantes del Convenio de Colaboración con el Gobierno de Navarra, estamos desarrollando una Campaña Informativa sobre la oferta educativa en euskera.

Es más, en Navarra tenemos el privilegio de gozar de un extraordinario patrimonio cultural al mantener viva la lengua más antigua de Europa. Mantenerlo para las generaciones venideras es una tarea que exige esfuerzos compartidos por todos y todas, pero, sin duda, tarea grata el conservar un acervo cultural único.

Aprovechamos esta ocasión para mostraros, a través de este medidor, **el proceso de crecimiento lingüístico** que llevará a cabo vuestro hijo o hija en esta etapa educativa si elegís la línea de euskera.

Sea cual sea la línea lingüística en el que matriculéis a vuestros hijos e hijas, deseamos que su rendimiento académico satisfaga y gratifique vuestros esfuerzos.

Si queréis cualquier aclaración relacionada con el tema, podéis solicitar información en el Servicio Municipal de euskera, en horario de atención al público, en el teléfono 948 286 309 ó en la dirección euskaraz@baranain.com

Recibid nuestro más cordial saludo.

Barañain, 2012ko otsaila

Guraso estimatuok:

Zuen semea/alaba aurrematrikulatzeko garaia helduko den honetan **(martxoaren 1etik 16ra)**, Udalaren Haur Eskolan berarendako euskarazko edo gaztelaniazko lerroa hautatzeko aukera izanen duzue.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuarekin hitzarmena izenpetuta dugun toki entitateok euskaraz ikasteko dagoen eskaintzari buruzko Kanpaina informatzailea zabaltzen ari gara.

Are gehiago, Nafarroan gainera, aparteko kultura ondarea izateko pribilegioa dugu, bizirik mantendu baitugu Europako hizkuntzarik zaharrena. Datozen belaunaldientzat mantentzea denon zeregina da, denon arteko ahalegina. Baina, zalantzarik gabe, lan atsegina da paregabeko kultur ondasun preziatu hori zaintzea.

Aukera honetaz baliatzen gara, neurgailu honen bitartez, zuen seme-alabaren **hizkuntza hazkundearen bilakaera** azaltzeko euskarazko lerroa aukeratzen baduzue hezkuntza maila honetan.

Zuen seme-alabak edozein hizkuntza lerrotan matrikulatuta ere, haien eskola-errendimenduak zuen ahaleginak saritu eta ase ditzan opa dizuegu.

Gaiari buruzko edozein argibide jaso nahi izanez gero, jo ezazue Udalaren Euskara Zerbitzura, jendeari arreta egiteko orduetan, 948 286 309 zenbakira deitu edo idatzi euskaraz@baranain.com helbidera.

Har ezazue gure agurrik leialena.

**EL ALCALDE**
**ALKATEA**

**D. José Antonio Mendive Jauna**

**PRESIDENTA COMISIÓN EDUCACIÓN Y DEPORTE**
**HEZKUNTZAKO ETA KIROLERAKO BATZORDEBURUA**
**RESPONSABLE ÁREA EUSKERA/**
**EUSKARA ARLOKO ARDURADUNA**

**Fátima Sesma Vallés**